

XEDAPEN OROKORRAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3821

AGINDUA, 2012ko uztailaren 9koa, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko langileen lanpostuetako monografie buruzkoa.

Abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak –Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duenak– VI. liburua erredaktatu zuen, zeinek, Justizia Administrazioaren zerbitzuplean dauden funtzionario eta gainerako langileei buruzkoa izanik, lanpostuen gaineko xedapenak jasotzen baititu. Zehazki, 521. artikulua lanpostu zerrenda horien edukia eta kontzeptuak arautzen ditu.

Bulego judiziala eta bulego fiskala indarrean jartzeak bulego horietako lanpostuen zerrendak arian-arian onartzea dakar. Zerrenda horiekin batera, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeak, EAEko Auzitegi Nagusikoak eta Bake Epaitegiak ere onartzen dira. Botere Judizialaren Lege Organikoari buruzko 522. artikulua arabera eta justizia arloan eskumenak eskualdatuta dituen erkidegoa den aldetik, EAEko Administrazio Orokorrak onartzen ditu, hasiera batean, lanpostu zerrenda horiek, nahiz eta azken onarpena Justiziako Ministerioari dagokion, zeinek legezkotasun arrazoiengatik baino ezingo baititu ukatu.

Justizia Administrazioko zerbitzura dagoen pertsonalaren arloan EAEko Administrazio Orokorrari eskualdatutako eskumenetan oinarrituz, eta aintzat hartuz Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan ezarritakoa, arautu egingo dira pertsonal horren lanpostuen monografiak eragina, edukia, elaborazioa, onarpena, aldaketa, eta horiek eskuratu eta artxibatzea.

Ordezkaririk gehien dituzten sindikatuek lanpostuen monografiak gertatzen parte hartzea ere jasotzen da Agindu honetan, horixe xedatzen baitu 223/2010 Dekretuko 15. artikulua. Dekretu horrek, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko Funtzionarioak Euskal Administrazio Orokorreko Funtzionarioekin nola parekatu arautzeko eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren eta CC.OO., ELA, CSI/CSIF, LAB eta UGT sindikatuen artean Bulego Judizial eta Fiskala ezartzeko IV. Akordioa onartu zuen.

Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuarekin bat etorritik,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-eremua.

EAEko Justizia Administrazioko zerbitzura dagoen pertsonalaren lanpostuen monografiak egin, aldatu, eskuratu eta artxibatzeako prozedura definitzea bilatzen du agindu honek, eta lanpostuak giza baliabideen osoko kudeaketaren ikuspuntutik erabat garatzeko aukera ematea.

2. artikulua.– Lanpostuaren monografia definitzea.

Eginkizunak eta zereginak deskribatzen dituen dokumentu eratzailea da lanpostuaren monografia. Horietaz gain, lanpostua modu eraginkorrean betetzeko behar diren profilaren osagarriak ere deskribatzen ditu. Era berean, lanpostu bakoitzeko dotazioen berezitasunak jasoko ditu monografiak.

3. artikulua.– Lanpostuari dagozkion edukiak.

1.– Lanpostuaren ezaugarriak.

a) Lanpostuaren izena: Lanpostuaren izena. Izenak laburra behar du izan eta gainera ahal den neurrian jarduteko eremua adieraziko du baita hierarkian lanpostuak duen kokapena ere.

b) Lanpostuaren kodea: lanpostu-eredua eta bere maila hierarkikoa identifikatzea ahalbidetzen du.

c) Lanpostu mota: orokorra edo berezitua. Lanpostu orokorrak: ez dira bereizten egitura organikoaren barruan eta kidego baten atazak edo eginkizunak betetzen dituzte bakarkako eginkizun-edukirik gabe. Lanpostu berezituak: bereiztu egiten dira egitura organikoan eta bakarka izendatutako atazak edo eginkizunak burutzea dakarte.

2.– Lanpostuaren egitekoak eta erantzukizunak.

a) Egitekoa: lanpostuaren xedea eta zentzua identifikatzen ditu lanpostuaren erantzukizun nagusien deskribapen sintetiko baten bidez.

b) Eginkizunak: lanpostuari gaineratutako erantzukizunen deskribapen zehatza, lehentasunezko izaera dutenak identifikatuz, hala behar izanez gero.

3.– Lanpostuaren eskakizunak.

a) Taldea: lanpostu batean jardun ahal izateko eskatzen den titulazio mailak ezarriko du zein den.

b) Kidegoa/Eskala: Bete beharreko eginkizunen izaera homogeenak ezarriko du.

4.– Hornitze sistema: behin betiko hornitzeko modua, bai lehiaketaren bidez, bai izendapen askearen bidez.

4. artikulua.– Dotazioari buruzko edukiak.

1.– Dotazioaren ezaugarriak.

a) Dotazioaren kodea: lanpostu baten barruan dotazioa identifikatzen duen kode numerikoa da.

b) Zentro kudeatzailea: EAEko Administrazio Orokorreko organo eskumenduna, zeinek Justizia Administrazioaren zerbitzura dagoen pertsonala kudeatzen duen.

c) Destino zentroa: dotazioari dagozkion eginkizunak eta zereginak zein zentrotan betetzen dituen.

2.– Dotazioaren zereginak. lanpostuaren eginkizunekin loturiko zereginak.

3.– Dotazioaren eskakizunak: dotazioaren baldintzak.

a) Hizkuntza eskakizuna eta berezitasun-eguna: euskara dela-eta lanpostua berezia bihurtzen den eguna.

b) Ezagupen bereziak: dotazioa eskuratzeko eskakizuna, baldin eta lanpostuan jarduteak nahitaez ezagupen edo teknika horiek ezagutzeko eskatzen badu bakarrik. Horri buruz esan behar da berariazko ezagupenak honako hauek izan daitezkeela:

– Informatikari buruzko ezagupenak eta aplikazioak erabiltzea.

- Lana eta pertsonala kudeatu eta antolatzeko arloko ezagutzak.
 - Legezko medikuntzaren aroko ezagutza tekniko espezializatuak.
 - Lanpostuaren edukirako edo lanpostua betetzeko garrantzizkoak diren gainerako ezagutzak.
- d) Dotazioaren berezitasunak lan-baldintzei buruz.

5. artikulua.– Lanpostuaren monografia gertatzeko prozedura.

1.– Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan, prozeduren eskuliburuetan eta Justiziako Administrazioaren zerbitzura dauden langileen kidego/eskalarako ezarritako arau berariazkoak hartuko dira kontuan.

2.– Justiziako Administrazioaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako dagokion Saileko Zuzendaritzak erredaktatu ditu Justiziako Administrazioko zerbitzura dauden langileen lanpostu-zerrendetako lanpostuen monografiatarako proposamenak, eta negoziazio sektorialerako mahaia osatzen duten sindikatuei helaraziko dizkiete, bidezkotzat jotzen dituzten ekarpenak edo alegazioak egin ditzaten. EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzari ere bidaliko zaizkio proposamenak, horien berri izan dezaten.

3.– Aurkeztutako alegazio guztiak erabaki eta lanpostuaren monografiaren edukia behin betirako baietsi ondoren, izenpetu eta eguna jarriko du Eusko Jaurlaritzako dagokion saileko zuzendariak, zeinek eskumenak izango baititu Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileen arloan.

6. artikulua.– Lanpostuaren monografia aldatzeko prozedura.

2.– Justiziako Administrazioaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako dagokion Saileko Zuzendaritzak hasiko ditu –ofizioz– Justiziako Administrazioko zerbitzura dauden langileen lanpostu-zerrendetako lanpostuen monografiak aldatzeko prozedura, negoziazio sektorialerako mahaia osatzen duten sindikatu nagusienek eskatuta edo lanpostu horietako titularrak edo okupatzaileak eskatuta.

2.– Justiziako Administrazioaren arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako dagokion Saileko Zuzendaritzak baloratuko ditu, aldez aurretik, Justiziako Administrazioko zerbitzura dauden langileen lanpostu-zerrendetako lanpostuen monografiak aldatzeko eskabideak, eta negoziazio sektorialerako mahaia osatzen duten sindikatuei helaraziko dizkiete, bidezkotzat jotzen dituzten ekarpenak edo alegazioak egin ditzaten.

3.– Hamar eguneko epean egoki deritzen alegazioak aurkez ahal ditzan, lanpostuaren monografiaren aldaketak interesdunari jakinaraziko zaizkio, hala interesdun hori izapidetzen ari den titularrari nola okupatzaileari. EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzari ere bidaliko zaizkio proposamenak, horien berri izan dezaten.

4.– Planteaturiko aldaketek Lanpostu Zerrendan islarik edukiz gero, horren aldaketaren izapideak egiteari ekin zaio ezargarri dakion prozedurarekin bat etorritz.

6.– Aurkeztutako alegazio guztiak erabaki eta lanpostuaren monografiaren edukia behin betirako baietsi ondoren, izenpetu eta eguna jarriko du Eusko Jaurlaritzako dagokion saileko zuzendariak, zeinek eskumenak izango baititu Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileen arloan.

7. artikulua.– Lanpostuen monografiaren artxiboa.

Lanpostuen monografiak, eguna eta izenpea jasota dutela, Eusko Jaurlaritzako dagokion Zuzendaritzan gordeko dira, zeinek eskumenak izango baititu Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileen arloan.

8. artikulua.— Lanpostuen monografiez baliatzea.

EAEko Intranet atarian egongo dira eskuragarri Justizia Administrazioaren zerbitzura lan egiten duen pertsonalaren lanpostuen monografiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Eusko Jaurlaritzako dagokion sailburuordeari —Justizia arloan eskumenak dituenari, hain zuzen ere— ahalmena ematen zaio agindu hau aplikatu, interpretatu eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

Bigarrena.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera indarrean sartuko da agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 9a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.